

Asisko gutuna

2010eko uztaia. 1. printzipioa.

Egunero Jainkoarekin

harreman pertsonalean jartzen saiatu. 21. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sareko lehen printzipiora bueltatzea aukera ona dugu, kristau izatea benetan zerk definitzen duen geure buruari galdetzeko. Funtsezko galdera da hau, bai beren fedea egunez egun berrituz joan nahi duten fededunentzat, bai kristautasunak zer eskain diezaikeen ikustera hurbildu nahi dutenentzat. Kristautasuna osatzen

duten elementu guztien artean beharrezkoa da funtsezkoenarekin gelditzea. Hil honetan fededunei, galdera hau egitera gonbidatzen zaie: non oinarritzen dut neure fedea? Edo bestela esanda: zergatik naiz kristau? Eta fededun izan gabe nolabaiteko interesa sentitzen dutenei: zer da funtsezkoena kristautasunean?

Gogoetarako gaia

Jesus Berpiztua

Sarriro galdetzen diogu geure buruari, zer den berezien eta espezifikoen kristautasunean. Erosoagoa litzaiguke geure pentsaerarekin erabat bat datorren erlijio bat, errazki eskuragarria, asmatzea; baina kristautasunean ez da horrela. Kristautasunak, Jainkoak gizakiarekin duen historia pertsonal batean du oinarria. Historia erreal batean, lekuko handiek eta pertsona xumeek kontatu eta bizitu duten historian. Nola sinetsi, Jaikoak historia indibiduala egin dezakeela gutako bakoitzarekin?

Bibliak etengabe hitz egiten du Jainkoak bere herriarekin egin duen itunaz. Ebanjelioan Jainkoaren maitasuna pertsona bat egiten da: Jesus, gurutzean hila eta piztu zena. Hau guztia historia ulergaitza da gure garaian, baina bizi den Jesus horrekin topo egitean oinarritzen da fedea, Paulo zalditik jaurti zuen topaketa horretan, Frantzisko bere hiriko enparantzan

biluzik jarrarazi zuen aurkikuntza horretan. Hain zuzen, Jesusek beretarrei hitz eman zien presentzia horretan elkar aurkitzean.

Gu Harenak bagara, nondik uler eta suma dezakegu misterio hau? Geure baitako bilaketak hurbilarazi egiten gaitu bizi gaituen espiritura, eta fedea gure zalantzen sastraka kentzen digu. Gurutzeko Kristo lur joaraziak, hilobi hutsean hartzen du bere zentzu guztia. Oinazea eta heriotza garaitu dituen Kristok ematen dio zentzua sufrimenduari. Ebanjelioan jakintsu, maitekor eta apal agertzen den Jesusek gizatasun-bidea erakusten digu, eta gu zaintzea, gu albora ez uztea, gurekin egotea hitz ematen digu.

Gure fedea txikia izanik ere, geure baitako isiltasunean entzun dezakegu bihotza zabaltzen duen hitza, eta senti gaitzke geure maitasunaren iturri den Jesusek onartuak.

Ebanjelioko pasartea: Jn 17, 9.11b-15.20-21

Hauen alde erregutzen dut; ez dut munduaren alde erregutzen, zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Aita santu horrek, zaindu zeure ahalmenaz zuk eman dizkidazunok, bat izan daitezten gu geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, neuk zaindu ditut eman dizkidazunok. Orain, ordea, zuregana noa. Hau guztia, oraindik munduan nagoela esaten dut, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea

izan ere. Ez dizut eskatzen haiek mundutik ateratzeko, Gaiztoarengandik babesteko baizik. Ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baina berauen predikua bidez niregan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin. Horrela munduak sinetsiko du, zuk bidali nauzula.

Espiritualtasun frantziskotarra

Frantziskok, bila eta bila ibili ondoren, bere bizitzaren oinarri eta harkaitz izango zenarekin egin zuen topo, hura azkeneraino maitatzeko eta harengan betirako atsedean hartzeko: *“Hemendik aurrera esango dut, gure Aita zeruetan zarena”*. Horregatik bere Aitari begira biziko da beti eta behin eta berriz gomendatuko die anaiei:

“... Anaia guztiok gauden oso erne, gogo bibotzak Jaunarengandik gal edo ken ez ditzagun, sari edo eginkizun edo mesederen baten aitzakiaz ... Abal duten ongien zerbitza, maita, ohora eta adora dezatela Jainko Jauna, eta egin bezate hori bibotz eta gogo garbiz” (1Er 22,25-27).

“Maita dezagun guztiok bibotz-bibotzez, gogo osoz, adimen guztiz, indar eta abalmen guztiz Jainko Jauna ...”

Ez dezagun, bada, beste ezer irrika, beste ezer nabi, ez diezagula beste ezerk atsegin eman eta gozaraz, geure Egile eta Berreroste eta Salbatzaile, egiazko Jainko bakarrak baizik, bera baita on betea, on guztia, on osoa, on egiazko eta gorena” (1Er 23, 8-9)

33. Salmotik

Bedeinkatuko dut Jauna une oroz,
etengabe goretsiko ene ezpainez;
entzun bezate apalek
eta poztu.

Dohakabe honek dei egitean, Jaunak entzun
eta larrialdi guztietatik atera zuen.
Dasta eta ikus zein ona den Jauna,
zorionekoa berarengan babesu duena.

Deiadar egitean, Jaunak entzun egiten du
eta larrialdi guztietatik libratzen.
Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik
eta salbatzen ditu etsita daudenak.

Zoritxar asko izaten du zintzoak,
baina guztietatik libratzen du Jaunak;
hezur guztiak zaintzen dizkio,
bat bakarra ere ez diote hautsiko.

Gutuneko azken hitzak

Kristau izaten hasi, geure bizitzan inizatiba hartzen duen Norbaiten aurrean babesik ez jartzeko prest gaudenean hasten gara.

2010eko abuztuko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abuztuko erreferentzia guztiak:

1 Lk 12, 13-21	8 Lk 12, 32-48	15 Lk 1,39-56	22 Lk 13, 22-30	29 Lk 14, 1. 7-14
2 Mt 14, 13-21	9 Mt 17, 22-27	16 Mt 19, 16-22	23 Mt 23, 13-22	30 Lk 4, 16-30
3 Mt 14, 22-36	10 Mt 18, 1-5. 10. 12-14	17 Mt 19, 23-30	24 Jn 1,45-51	31 Lk 4, 31-37
4 Mt 15, 21-28	11 Mt 18, 15-20	18 Mt 20, 1-16	25 Mt 23, 27-32	
5 Mt 16, 13-23	12 Mt 18, 21-29	19 Mt 22, 1-14	26 Mt 24, 42-51	
6 Mt 17,1-9	13 Mt 19, 3-12	20 Mt 22, 34-40	27 Mt 25, 1-13	
7 Mt 17, 14-20	14 Mt 19, 13-15	21 Mt 23, 1-12	28 Mt 25, 14-30	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2010eko uztaila. 1. printzipioa. Egutero, Jainkoarekiko

harreman pertsonala landu

21. zenbakia

Nor da Jesus niretzat? Hau da galdera nagusia, fedearen muina ukitzen duen galdera. Jarraiko horiek guztiak bere barruan baditu ere, kristautasuna ez da ez etika (zintzotasuna eta bertuteak), ez kausa bat (behartsuak nahiz gizadia), ez eta jakinduria bat ere (existentzia den misterioaren interpretazioa), ez eta erlijio-esperientzia ere (mugatasuna, zerbait gehiagorako deia). Nazaretoko Jesus izan zen pertsona zehatza da kristautasunaren esentzia, Erromatar Inperioko bazter batean bizi eta hil zena, berpiztu zena eta bizirik dirauena.

Nazaretoko Jesus: kristautasunaren esentzia

Jarri zara inoiz pentsatzen, zergatik zaren kristau? Ez ezazu izan, dakizunetik abiatuta erantzun azkarrik emateko gogorik. Utzi barrutik etortzen erantzunari.

Agian galdera horrek honako honetaz konturatzera eramango zaitu: zuretzat kristautasuna asimilatu duzun ondare familiar eta soziala izan dela soilik, eta ez duzula oraindik burutu hura zeure egitea. Hori horrela bada, nola bizi duzu? Frustrazio gisa, ala egiaz inportantea denaren berri izaten hasteko aukera gisa?

Azken batean kristautasuna, norberak Jesusen aurkikuntza egitea da, baina aurkikuntza hori ez da beti fedearen hasieran ematen ... Aukera ona duzu hau, harengana hurbiltzeko, urratzez urrats harengana irekitzeko.

“Izan daitezela bat, gu geu bat garen bezala”

Testu honetan Jesus bihotza zabalik agertzen zaigu. Zer zetorkion aurretik ikusirik, Aitaren eskuetan uzten ditu bere dituenak, ordukoak eta oraingoak.

Zu zeu zara horietako bat, eta zuri opa dizu berak duen poz bera, eta denoi opa digu elkarrekin bat izatea, bera Aitarekin bat den bezala. Zer hoberik opa zezakeen?

Utzi horri guztiari bihotzean oihartzun egiten: Jesus zure alde Aitari erregutzen. Utzi, testuko oihartzunak otoitz bihur daitezen.

“Ez dezagun hori beste gauzarik desira ...”

Frantzisko, zerbaitetan izatekotan, Jesus eta Jainkoaz duen esperientzian izan daiteke egiazko erreferentzia emaile guretzat. Honetan datza Frantziskoren sekretua: berari begiratzen diogunean, begirada Jainkoarengana daramakigula, Hura alde alde ikusten uzten digulako.

Frantziskoren testuek testigantza ematen dute, bere bihotzaren eta bizitzaren erdigunea eta iturria aurkitu duenaren testigantza. Entzun itzazu, egin behar duzun bidea egin duen anaia nagusiari entzungo bazen bezala.

Esnatzen du zure baitako Jainko-irrika? Utzi zeure baitatik etortzen irrika horri, jakinez azken finean fede biluzia dela inportantea, desira baino haratago.

“Dasta eta ikus zein ona den Jauna”

Hil honetako ebanjelio-pasartean Jesusek esaten duenaren aurrean, zer egin dezakegu entzun eta apalki poztu baizik?

Kristauaren otoitza etengabeko bedeinkazio eta gorespen egiten da, bere dituenak ondoan hartu eta zaintzen dituen Jainkoaren aurrean; bere maitasunaren neurrigabea ezagut ahal dezagun Jesusengan gutako bat egin den Jainkoaren aurrean.

Bizitza hobeto edo okerrago joango zaigu, baina kristauak badaki nortaz fidatu den eta noren laguntza izan dezakeen. Hori da zure esperientzia?

Honako hau da sinesten dutenei nahiz ez dutenei egindako gonbitea: “Dasta eta ikus zein ona den Jauna”.